

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: **EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2008/24/EE ZUZENTARAUA, 2008ko martxoaren 11koa, kreditu-erakundeen jardueran sartzeko eta aritzeari buruzko 2006/48/EE Zuzentaraua aldatzen duena, Batzordearen betearazte-eskumenei dagokienez.**

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da :
«DIRECTIVA 2008/24/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 11 de marzo de 2008 por la que se modifica la Directiva 2006/48/CE relativa al acceso a la actividad de las entidades de crédito y a su ejercicio, por lo que se refiere al ejercicio de las competencias de ejecución atribuidas a la Comisión» (*Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 81/38, 2008/3/20koa*)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ZUZENTARAUAK

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2008/24/EE ZUZENTARAUA

2008ko martxoaren 11koa,

**kreditu-erakundeen jardueran sartzeko eta aritzeari buruzko 2006/48/EE Zuzentaraua aldatzen duena,
Batzordearen betearazte-eskumenei dagokienez.**

(Testu egokia EEEri dagokionez)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 47. artikuluko 2. paragrafoa, lehen eta hirugarren esaldiak,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena⁽¹⁾ aztertu dute,

Europako Banku Zentralaren irizpena⁽²⁾ aztertu dute,

Tratatuko 251. artikuluan araututako prozedurari jarraituz ⁽³⁾,

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) 2006/48/EE Zuzentaruak, Europako Parlamentuarenak eta Kontseiluarenak ⁽⁴⁾, xedatzen du zein diren 1999ko ekainaren 28ko Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiaren ⁽⁵⁾ arabera onartu beharreko neurriak. Erabaki horretan ezarrita dago zer prozedura bete behar dituen Batzordeak berari dagozkion eskumenak betearazteko.

(2) 1999/468/EE Erabakia 2006/512/EE Erabakiak aldatu zuen. Erabaki horrek neurri orokorrak hartzeko kontrolpeko arautze-prozedura jarri zuen abian. Neurri horien helburua Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera hartutako oinarritzko egintzetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzea da, eta, beharrezkoa izanez gero, elementu horietako batzuk ezabatzea edo funtsezkoak ez diren beste elementu batzuen bidez egintza hori osatzea.

(3) Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak 2006/512/EE Erabakiari buruz hartutako Adierazpenaren ⁽⁶⁾ arabera, kontrolpeko arautze-prozedura Tratatuaren 251. artikuluan araututako prozedurari jarraituz hartu diren eta indarrean dauden egintzetan aplikagarria izan dadin, egintza horiek prozedura aplikagarrien arabera egokitu behar dira.

(4) Batzordeari eskumenak ematea komeni da, egokitzapen teknikoak egin eta exekuzio-neurriak har ditzan, finantza-merkatuen teknologia-eboluzioa aintzat hartzeko eta 2006/48/EE Erabakia uniformeki aplikatzea bermatzeko, besteak beste.

(1) EO C 161, 2007.7.13koa, 45. or.

(2) C 39 EO, 2007.2.23koa, 1. or.

(3) Europako Parlamentuaren 2007ko azaroaren 14ko irizpena (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluak 2008ko martxoaren 3an hartutako Erabakia.

(4) L 177 EO, 2006.6.30ekoa, 1. or. Zuzentaraua, azkenekoz, 2007/64/EE Zuzentaruak aldatu zuen (L 319 EO, 2007.12.5ekoa, 1. or.).

(5) L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or. Erabaki hori honek aldatu zuen: 2006/512/EE Erabakiak (L 200 EO, 2006.7.22koa, 11 or.).

(6) C 255 EO, 2006.10.21ekoa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Honako hauek dira neurri horien helburuak: definizioak ezartzea, salbuespenen irismena aldatzea, eta Zuzentarau horretako xedapenak zabaltzea edo osatzea funts propioen ezaugarriari eta arriskuen eta esposizioen antolaketari, kalkuluari eta ebaluazioari dagozkien aldaketa teknikoan bitartez.

Neurri horiek orokorrak eta 2006/48/EE Zuzentaraan funtsezkoak ez diren elementuak aldaraztekoak direnez gero (funtsezkoak ez diren elementu gehiagorekin ere osa daitezke), 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.

(5) 2006/48/EE Zuzentaruak denbora-muga bat ezartzen du Batzordeari dagozkion betearazte-eskumenetarako. Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak 2006/512/EE Erabakiari dagozkion Adierazpenean azaltzen dutenez, 2006/512/EE Erabakiak denon artean erabakitze-prozeduraren arabera hartutako neurrien aplikazioa kontrolatzeko Europako Parlamentuaren asmoari irtenbide horizontala eta egokia ematen dio, eta, horrenbestez, inolako denbora-mugarik gabe eman behar zaizkio betearazte-eskumenak Batzordeari.

Halaber, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak adierazi zuten, Batzordeari betearazte-eskumenak lagatzeko epe jakin bat aurreikusten duten agirietan barneratzen diren xedapenak indargabetzeko proposamenak, ahalik eta denbora laburren hartzea bermatuko lukete. Kontrol-dun arautze-prozedura sartu ondotik, 2006/48/EE Zuzentaraan denbora-muga hori ezartzen duen xedapena ezabatu egin behar da.

(6) Batzordeak esleitu zaizkion betearazte-eskumenei dagozkien xedapenen funtzionamendua ebaluatu behar du aldizka, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak eskumen horiek nahikoa zabalak diren eta Batzordeari ezarritako prozedurazko betekizunak egokiak diren eta eraginkortasuna nahiz erantzukizun demokratikoa bermatzen duten erabaki ahal izateko.

(7) Horrenbestez, egokia da 2006/48/EE Zuzentaraia aldatzea.

(8) Zuzentaraia honen bitartez 2006/48/EE Zuzentaraan egin beharreko aldaketak teknikoak direnez eta Komitearen prozeduran soilik eragiten dutenez, ez dira, ezinbestez, estatu kideen eskutik barneratu behar. Ondorioz, ez da beharrezkoa horretarako xedapenik ezartzea.

ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Aldaketak

2006/48/EE Zuzentaraan aldaketa hauek egin dira:

1) 150. artikulua honela aldatu da:

a) 1. paragrafoan, sarrerako esaldia testu honek ordeztzen du:

«1. Berezko funtsei dagokienez, Batzordeak 62. artikulua arabera aurkeztu beharreko proposamena alde batera utzi gabe, Zuzentaraia honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko egokitzapen teknikoak, 151. artikuluan, 2. paragrafoan ezartzen den kontrol-dun betearazte-prozeduraren arabera hartuko dira, jarraian agertzen diren alderdietan.»;

b) 2. paragrafoa aldatuta honela gelditzen da:

i) sarrerako testuan honako hau ezabatu da: «151. artikuluan, 2. paragrafoan ezartzen den prozeduraren arabera»,

ii) lerrokada hau erantsi da: «Zuzentaraia honetan (berau osatuz) funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko a), b),

c) eta f) idatz-zatietan aipatutako neurriak, 151. artikuluan, 2. paragrafoan ezartzen den kontrol-dun betearazte-

2008/24/EE Zuzentaraia (EBren Egunkari Ofiziala, L 81/38 2008/3/20koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

prozeduraren arabera hartuko dira. d) eta e) idatz-zatietan aipatzen diren neurriak, 151. artikuluan, 2 *bis* paragrafoan ezartzen den betearazte-prozeduraren arabera hartuko dira.»;

c) 3 eta 4. paragrafoak ezabatu egin dira.

2) 151. artikulua honela aldatu da:

a) 2. paragrafoa testu honek ordeztu du:

«2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5 *bis* artikuluko 1etik 4ra bitarteko paragrafoak eta 7. artikulua izango dira aplikagarriak, eta 8. artikuluan xedatutakoa ere bete egingo da.».

b) paragrafo hau sartu da:

«2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5 eta 7. artikulua izango dira aplikagarriak, eta 8. artikuluan xedatutakoa ere bete egingo da.

1999/468/EE Erabakiko 6. paragrafoko 5. artikuluan aurreikusten den epea hiru hilabetekoa da.»;

c) 3. paragrafoa testu honek ordeztu du:

«3. 2010eko abenduaren 31n beranduenera eta hortik aurrera, gutxienez, hiru urtetik behin, Batzordeak bere betearazte-eskumenei dagozkien xedapenak berrikusiko ditu eta txosten bat aurkeztuko dio Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, eskumen horien funtzionamendua azaltzeko. Txosten horretan Batzordeak berari esleitu zaizkion betearazte-eskumenak dagokion moduan bereiztea bermatuko duten aldaketak proposatzeko beharra aztertuko da, zehazki. Aldaketa sartzeari edo ez sartzeari dagokion ondorioarekin batera, arrazoien xehetasunezko azalpena izango du. Beharrezkoa balitz, txostenarekin batera arau-proposamen bat erantsiko da, Batzordeari betearazte-eskumenak esleitzeari dagozkion xedapenak aldatzeko.».

2. artikulua

Indarrean sartzea

Zuzentarau hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

3. artikulua

Hartzaileak

Zuzentarau honen hartzaileak estatu kideak dira.

Estrasburgon, 2008ko martxoaren 11n.

Europako Parlamentuaren izenean, H.-G. PÖTTERING *presidentea*

Kontseiluaren izenean, J. LENARČIČ *presidentea*